



EBAZPENA

Julián Ríos Santiago jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkariak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAO n argitaratua 2019/07/11ko 132. zenbakian), honakoa erabaki du 213/2021/DL espedienteari buruz:

Aztertu ondoren hitzarmena sinatzeko informe teknikoa, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

E R A B A K I D U T

1. Hitzarmena sinatzea Durangoko Udalaren eta CARITAS DIOCESANAS DE BILBAO elkartearen artean, honako testu honekin:

DURANGOKO UDALAREN ETA "BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA"-REN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA

BILDURIK: Batetik, JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, NAN 30.662.165-Z, DURANGOKO UDALEKO 1. Alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi TERESA OLEA-GA LARRINAGA andreak lagundurik, NAN 30.616.524-M.

Eta, bestetik, BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA-ren izenean, R4800309-I, bere presidente CARLOS BARGOS CUCO jauna, NAN 11.925.749-L zenbakiduna.

RESOLUCIÓN

El 1er Teniente de Alcalde don Julián Ríos Santiago, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el «BOB» número 132 de 11 de julio de 2019, ha dispuesto con relación al expediente 213/2021/DL lo siguiente:

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

HE RESUELTO

1. Firmar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y la Asociación A CARITAS DIOCESANAS DE BILBAO con el siguiente texto:

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO

REUNIDOS: De una parte, JULIAN RÍOS SANTIAGO, con D.N.I. nº 30.662.165-Z, 1.Teniente de Alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido de la Secretaria General Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, con D.N.I. nº 30.616.524-M, que da fe del acto.

Y de otra, CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO, R4800309-I, representada por CARLOS BARGOS CUCO con D.N.I. nº 11.925.749-L, en su condición de presidente de CARITAS DIOCESANA DE BILBAO.



DIHARDUTE: JULIÁN RÍOS SANTIAGO jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkariak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa); BAOn argitaratua 2019ko uztailaren 11ko 132. zenbakian; TERESA OLEAGA LARRINAGA andrea, Udaleko Idazkari Nagusi eta CARLOS BARGOS CUCO jaunak, BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA-ren presidente moduan eta berau ordezkatzuz, halaxe izendatu baitzuen Bilboko gotzain RICARDO BLÁZQUEZek CARMELO IBARRA gotzain jaunaren aginduari jarraituz.

AITORTU ONDOREN batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

ADIERAZTEN DUTE:

I.- BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA, Eliza Katolikoaren erakunde bat da eta honako helburua du: karitatezko ekintzetan aritzea eta bazterketa, ezberdintasuna eta pobrezia kontrako lanak egitea.

II.- Caritas-ek laguntza programak antolatzen ditu, zerbitzu orokorren eta elizbarrutiko eta parrokiako Caritas-en bidez. Durangon *Cáritas Tabira* izango litzateke bere baliokidea.

III.- Durangoko Udalak BILBOKO CARITAS DIOCESANA-rekin lankidetzan jardun gura du, Caritas Tabira-k Durangon burutzen dituen programak garatze aldera. Honelaxe, ondorengo lankidetzak hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren betebeharrekin.

BETEBEHARRAK:

DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.- Durangoko Udalak 48.500,00 (BERROGEITA ZORTZI MILA ETA BOSTEHUN) euroko diru-laguntza emango dio BILBOKO CÁRITAS DIOCESANARI. Ordainketa 51.2311.48102 diru-partidaren kargura egingo da. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

ACTÚAN: El 1. Teniente de Alcalde, Don JULIÁN RÍOS SANTIAGO, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el BOB número 132 de 11 de julio de 2019; Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, en su calidad de secretaria general del Ayuntamiento y Don CARLOS BARGOS CUCO como presidente de CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO, en nombre y representación de la misma, conforme al nombramiento del Obispo de Bilbao RICARDO BLÁZQUEZ por mandato del Sr. Obispo CARMELO IBARRA.

RECONOCIÉNDOSE las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

MANIFIESTAN:

I.- Que CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO es un organismo de la Iglesia Católica dedicada a la acción caritativa y social, que desarrolla un trabajo en contra de la exclusión, las desigualdades y la pobreza.

II.- Cáritas organiza sus programas de ayuda mediante sus Servicios Generales y las Cáritas Diocesanas y Parroquiales, que en el Municipio de Durango correspondería con *Cáritas Tabira*.

III.- Que el Ayuntamiento de Durango desea colaborar con CARITAS DIOCESANA DE BILBAO, en aras a la consecución del desarrollo de programas que Cáritas Tabira desarrolla en el Municipio de Durango. Es por lo que formalizan el presente Convenio de Colaboración, que contiene las siguientes

CLÁUSULAS:

COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 48.500,00 (CUARENTA Y OCHO MIL QUINIENTOS) euros, con cargo a la partida 51.2311.48102, a CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.



BILBOKO CARITAS DIOCESANA-k HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-

Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:

- Lana lortzeko arazoak dituzten pertsonak laneratzeko programak garatzea, honako proiektuaren bitartez:
Zaintza «etxea eta etxeakoak zaintzea».
- Bazterkeria arriskuan diren pertsonentzako harrera-programa garatzea, argibideak, babesa, diru-laguntasuna eta orientabideak emateko; eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik eratorritako eskariei arreta eginez.
- Gizarte Ekintzako sailarekin lankidetzaz izatea gizarte-bazterketako gaietan.
- Udaleko gizarte-ekintza arloak bultzatutako gizarte-mahaian parte hartzea.
- Gastuen justifikazioa, 2021. urteko fakturekin, eta formatu digitalean aurkeztuko dira (.pdf).
- 2022eko otsailaren 26a baino lehen jardueraren memoria zehatza aurkeztea.
- Ekintzak udalak diruz lagundutakoak direla argiro uztea agerian, elkarteak programaren berri zabaltzeko informazio grafiko, idatzi eta entzuteko guztietan.

DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.- Durangoko Udalak honela ordainduko dio BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA-ri: %80a (38.800,00 euro) hitzarmena sinatzen den hilabetearen azken egunean ordainduko da. Gainerako %20a, (9.700,00 euro) diru-laguntza eman izanagatik helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.

IRAUPENA.- Hitzarmena bertan behera geldituko da 2022ko otsailaren 26an.

HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.- BILBOKO CÁRITAS DIOCESANA-k hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzaz hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe

COMPROMISO ASUMIDO POR CARITAS DIOCESANA DE BILBAO.-

Organizar y realizar las siguientes actuaciones:

- Desarrollar el programa de inserción laboral, dirigido a personas con especiales dificultades para lograr un empleo. Para ello realizará el programa :
Zaintza «cuidados del hogar y personales»
- Desarrollar el PROGRAMA DE ACOGIDA en el que se ofrece información, acompañamiento, ayuda económica y orientación a las personas en situación de riesgo de exclusión. Prestando atención a las demandas derivadas desde los servicios sociales de base municipal.
- Colaborar con el área de Acción Social en materia de exclusión social.
- Formar parte de la mesa social impulsada por el área de acción social municipal.
- Justificación de gastos mediante facturas correspondientes al año 2021, que se presentarán en formato digital (.pdf).
- Presentación de la memoria detallada de su actividad con anterioridad al 26 de febrero de 2022.
- Hacer constar de forma clara que la actividad está subvencionada por el Ayuntamiento de Durango, en toda la información gráfica, escrita y sonora que la asociación realice con motivo del programa o en su difusión.

FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.- El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO se realizará de la forma siguiente: 80% (38.800,00 euros) último día del mes de la firma del Convenio. El 20% (9.700 euros) restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

DURACIÓN.- El presente Convenio quedará extinguido el 26 de febrero de 2022.

EXTINCIÓN.- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la



ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

BATERAGARRITASUNA.- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztatiriak aurkeztu behar ditu.

ARAUDI OSAGARRIA.- Hitzarmen izendun hau Durangoko Udalak 2020ko abenduaren 22ko osoko bilkuran onartutako 2021eko diru-laguntzen plan estrategikoan dago jasota.

Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

2. Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: 48.500 Euro. Ordainketa 51.2311.48102 diru-partidaren kargura egingo da.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

4. Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko diru-kopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

COMPATIBILIDAD.- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

NORMATIVA COMPLEMENTARIA.- El presente convenio nominativo está recogido en el Plan Estratégico de Subvenciones 2021 aprobado en pleno por el Ayuntamiento de Durango el 22 de diciembre de 2020.

En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a 48.500 Euros, con cargo a la partida 51.2311.48102.

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio Convenio.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará a lo indicado en el propio Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma el Teniente de Alcalde delegado, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.